

Gaur egun gizartean erabat zabaldua dago mugikorraren erabilera, eta ia denok daukagu bat. Egunero erabiltzen dugu, uneoro izaten dugu eskuetan. Hori dela eta, bateria asko kontsumitzen dugu eta arazo bat aurkitzen dugu mugikorrak bateriarik gabe geratu eta hauek kargatzeko, etxetik kanpo gaudenean batez ere. Erabilpenari jarraipena eman ahal izateko etenik izan ez izateko eta azken finean aparailuaren autonomia hobetu beharra ikusiz, konponbidea eman nahian bideratu dugu gure proiektua.

Instalazio elektriko finko ohikotik at, entxufatu beharrik ez izateko. inolako sare finkora lotu beharrik ez izateko Energi berriztagarriak erabiltzeko proposamena aztertu dugu.

Telefono mugikor bati eguzki plaka bat txertatuko diogu, uneoro bertatik energia jaso dezan, eta kargatzeko ohiko sareko elektrizitate beharrik izan ez dezagun.